

ARAGOI ZARREKO ERRI-IZEN EUSKALDUNAK



850'ko BIGARREN LARRUKI BAT

– Urte ortan bertan idatzia izan zan lenengo larrukiak ez du illaren eta egunaren aipurik. Au uztaillaren 5'ekoa da'.

– Larrukiaren zergaitia: Zerzitu'ko lekaidetxeari eman zitzaizkion ondasun batzuen berri ematea da.

Ikus Atonio Ubieto Arteta'k² ipiñi zion aurre-oarra; «*Jimeno, Fisema y Bellisima donan a San Juan de Cercito diversos bienes sitos en Arrés*».

*

Toki-izenak

Ez dira asko Larruki onek damaizkigun Aragoi ipartarreko toki-izenak:

CIRCITO

– CIRCITO. Erri oni CIRCITI —genitibu edo noren-eran— eta ZIRZITU beza-la damaigu larrukiak, eta azkeneko au da noski IX mendean toki artako jendeek (danak euskaldunak) itzegitean emango zioten izena.

An zegoan larruki ontako Yondonimarti'ren lekaidetxea. Baldar xamar aipatzen du larrukiak: «*Martini episcopi et confesoris cuius basilica in locum Circiti villa Agurini ripam noscitur fuise fundata*: «Martin gotzai eta aitorlearen basilika non zegoan gauza ezaguna omen da», baiñan non zegoan esaterakoan, ez dabill oso argi larruki ontako lumalaria: «*in locum Circiti villa Agurini ripam*» zegoala bait dio. «Villa» ori)zer ote da; uritxo bat? edo nekazari-etxe aberats bat³?

Eta «Agurini»?)«Cercito» zeritzan tokian zegoan «Villa» artako jabearen izena ote zan, jenitibo edo noren-keran idatzia?

Ubieto'rentzat, gaur Aurin esaten zaion toki-izen bat da: «*término de Cartirana, partido judicial de Jaca*». Beraz, Erdiaroko latíñ baldarraren araura, larruki-ko AGURINI ori noren-keran baldin ba'dago, «muño» ura («*ripam*») Aguriñ'en zegoan, eta Agurin Cercito izeneko uritxoan («*in locum Circiti villa*»)

AGURIN itzak Araba'ko AGURAIN (Salbatierra) dakarkigu gogora.

¹ Nere irakurleek badakite noski, Aragoi'ko euskerari-buruz aurkezten ari naizen larrukiok Piña'ko Yondoniane'ren Lekaidetxeko kartulariokoak dirala.

² «Cartulario de San Juan de la Peña». Tomo I. Valencia 1962

³ Naparrek «nekazari-etxe» ez baiña «nekazaitxe» esango lukete: «Nekazari-tza-etxe»ren laburpena.

– CERCITO edo ZIRZITU'ko lekaidetxe au, Peña'koa sortu aurretik, dokumentuen bidez IX mendeko Aragoi euskaldunean ezagutzen ditugun bost edo lekaidetxeetako bat dugu. Danak izan ziran erlijiozko bizitzaren eredu zintzoak, eta orduango Euskalerra Zar artako kristautasunaren indar bizkorren lekuko, ots, testigu bikaiñak. Bein baiño geiagotan agertuko zaigu Zerzitu'ko Lekaide-txe au, eta mintzatuko gera, osterera ere, berari-buruz.

Oroi dezagun Kalifen Kordoba aberats eta jakintsu artako Eulojio'k ikustatu zituala Aragoi eta Naparroa zarretako lekaidetxe auetako batzuk, ata bertan, lekaidetxe aietan, aurkitu zuan erlijiotasun sendoaz eta jakituri aundiaz arriturik itzuli zala Kordoba'ra, an aurkitu zituan liburu baliozko batzuk berekin eraman-nez. Eta bazan noski Eulojio, Andaluzi'ko mozarabitarren burua, erlijiotasunaz eta kulturaz itzegiteko, gaitasunik aski bazuan gizona!

Oroi dezagun baitare lekaide aiek danak euskaldunak zirala, zearo Euskal-erria zan orduango Aragoi artako semeak ziralako.

Aztertu bearke dugu noizbait, Doneeulojio'k, Euskalerra artan ikusi zituan lekaidetxei-buruz, Guilesindo Iruña'ko gotzaiari idatzi zion gutun txit aintzakorra.

ARRES

– ARRES. Larrukiaren sarreran: «*De Sancti Vincenti de Arres*»: «Arres'ko Donebixente'ren (idazkia).

Geroxeago «*unam terram in Arraise, in parte solana, pro vinea ponenda*»: «Arraise'n, eguteran, alor bat, masti biurtua izateko egokia». Eta lerro batzuk aurrerago, «*tertiam partem termini Arraisi*»: «Arraisi deritzan lekuaren irurdena», irakurri dezakegu larruki ontan.

Dakusazunez, baldarki erabilli zuan itz ori latiñezko deklinabidean idazle zar arek.

Gaur Arres esaten diote erritxo orri, baiñan bere antziñako izena ARRAITS zala dirudi. «Arraitz», gazteleraz «Roca Pétre»?

Zuana zuala bere izen orri, euskal-itxurarik ez dio beintzat iñork ukatuko.

* * *

Norki-izenak

Baiñan...Onen aurreko dokumentua (850'ko bietan lenengoa) aztertzerakoan, zorretan utzi genuan ango giza-izenen aurkezpena, bigarren au aurkeztean, azterketa ori egingo genuala esanez.

Bete dezagun bâ, orain, an agindu genuana: ikus emen larruki artan agertu zitzaizkigun giza-izenak:

A)- Larrukia idatzierazi zutenak:

GARCIA ENNECONES

- GARCIA ENNECONES rege in Pampilona: Jaun au, Gartzia Enekorena, Iruña'ko erregea dugu.

915'tik 1150'ra lau izan omen ziran izen ortako erregeak Iruña'n. Au lenengo da. Eneko Aritza'ren semea. Danok ez gaude ordea zenbaki orrekin bat, ikusiko duzun lez. Nik beintzat bost izan zirala uste dut

ENNEKONES edo Eñekones, ots EÑEKORENA, errege aren abizena da, egiaz, gaiñera abizena edo ABA-IZENA, Eñeko zeritzan bere aitaren izenetik sortua dalako. ENEKO edo EÑEKO euskal-usai aundiko itza da. Alare, ez naiz asiko bere etimologiaren billa. Etimologi ori iñork ezagutzen ez daulako... eta Ennekones itzean «ENNEKO» itzaren enborra baiño «NES» atzizkia askoz arduragarriagoa zaidalako. Ona emen zergaitik:

«NES» eta «ES» edo «EZ» atzizkiak itz bat bera dira, «NES»en aurreneko «N» ori izki zentzu-gozagarri bat besterik ez da. Bera gabe, «ENNEKOEZ», itz zaka-rragoa ta latzagoa gertatzen bait da ENNEKONES baiño. Euskera, berriz, «kakofoni» ororen etsai amarrada izaki!!!

«EZ» (López, Pérez, Pelaez) «ES» edo «IZ» (Garcés, Péres, Martiniz) atzikiak bizi-bizirik dabilzkigu gaurregun Iberiar-Erdiugarteko abizenetan, noiz-bait aitarena izan zan izenari erantsirik. Bearrezkoa danean aurretik «N» gozagarria ere ipiñi oi zaie (Romano-nes, Pero-nez). Biak, «EZ» eta «ES» atzizki bat dira; Iberiar-Erdiugarteko erromantzeetan beintzat oso zarrak. Ain zarrak ere! Erromantze beroiekin batean jaio bait ziran!⁴

Baiñan atzizki oiek alare ez dira latiñezkoak. Erromatarren ondorean, Germaniarak, ots, Bisigotak, izan ziran Erdiugartearen jabe. Baiñan ez dira germanierakoak. Ezta, Bisigoten atzetik etorri ziran Arabitarren izkuntzakoak ere. Euskaldunak ote dira?

Naiz latiñezkoak izan ez, Itali'n agertzen zaizkigu lendabizi, burnigorri edo brontzezko ol batean zulakaitzez idatzirik, Askoli izeneko urian. Oso-oso goiz. Erroma'ko inperiotza jaio aurretik, Erroma errepublika zanean. Krist-aurreko 90'garren urtean.

Atzizki oiek latiñezkoak ez ba'dira)nola Itali'n agertu ziran beste iñon baiño askoz eta askoz leenago? Zeramazkitenek euskaldunak ziralako! Erroma'ko gudaroztean zaldizko talde bateko zaldunak.

Ona gertakizun aren edesti osoa: Errepublika izan zan Erroma aundi, indartsu eta aberats egin zuana. Gero, inperatoreek, bakoitza Jainko bat zala uste izan zuten eta jainkoa bezala gurtuak izatea agintzen zuten inperatoreek, aberastasun ura alaiki —eta aski lizunki— ondatu besterik ez zuten egin.

Bikaiña izan zan Erroma'ko errepublika, baiñan orduango politika-era guztietan bezala, errepublika artan ere esku geiegi izan zuten gudarozteko buruzagiek, Ala, an ere ugari izan ziran anaiarteko guduak.

Gudu aietako batean, dirudianeaz ain bikainki jardun bait zuan borrokan eusko-zaldun talde arek, Scipion gudalburua, zaldun aiei «Ciudadanía Romana», edo «Erroma'ko Uritarkuntza» ematea bearrezkoa zuala uste izan zuan, eta Erroma'ko Uritar egin zituan danak.

Errepublikak oso-oso-oso nekez atzerritar bati eman izan zion goi-aipua zan ori, berekin eskubide-sorta naroa zeramana. Inperiotzakoan bai egin izan zan diru-pillo aundi baten truke uritarkuntza errez emate ori, (baiñan errepublik-aroan ez!

⁴ Latiñez idatzitako larruki zarretan oso-oso maiz aurkituko duzu «NES» atzikia: Larruki ontan bertan: Enneco-nes (Eneko-rena), Munnio-nes (Muño-rena), Scemeno-es (Ximeno-rena. Askotan «E»ori «I» biurtu oi zuten, azkeneko izki onen doiñuz agoskatzuten zutelako. Adibidez, larruki ontan bertan Galindones eta Galindonis

Ez zan noski nolanaikoa izan Erroma'ko gudaroztearen barruan «Turma Salluitana» esaten zitzaion zaldun-talde artako gudari euskaldun aien jardunke-
ra. Danak izan bait ziran ain oituraz-kanpoko era txit onugarrian sarituak.

Ezagutu naiko duzute noski Askoli'ko brontze edo tupikian zer ikusi daite-
kean. Nere itza damaizuet, nere irakurle adiskide maiteoi, aldizkari onen dato-
rren zenbakian Askoli'ko tupiki ori aztertuko degula⁵.

«Ez» «Iz» «Es» «Is» atzizki oiek ez dirala latiñak, esan dut; baiñan esan dedan
ori obeki mugatu bearra dut. Latiñezkoak ere bai bait dira oien arteko «ES» eta
«IS» atzizkiak beintzat. Eta bearrezkoa dutenean eraman oi dute izki doiñu—
gozagarri bat: «N» edo «G».

Baiña...:

LATIÑEZKOAK DIRANEAN EZ DUTE EUSKERAZKOAK DIRANEAN DUTEN
ZENTZU BERDIÑA.

Euskerazkoak diranean «NORENTASUNA» adierazten dute; Latiñezkoak
diranean, «NONGOTASUNA».

Orrela adibidez, ENNEKO-NES itzaren «NES» orrek, euskalduna dalako,
nongotasuna ez baiña norentasuna adierazten digu: ENNEKO-RENA. Baiñan
BASCO-NES itzaren «NES» atzizkiak, latiñezkoa dalako, norentasuna ez baiña
nongotasuna da agertzen diguna: BASCO-NES, BASKONI'KOAK.

Berdin gertatuko zaigu BITURI-GES itzarekin. «GES» atzizki orrek, latiñezkoa
dalako, norentasuna ez baiña nongotasuna erakusten digu: Bituri-Ges = Bituri-
koak.

BITURIGES

BITURIGES edo Bituri'ko oiek, erromatarrek esan zigutenez, Iruña ta Orrea-
ga bitartean bizi ziran, ots Euskalerraren biotz-biotzean. Ala, beren erri ark,
BITURI'k, naitanaiez izan bear zuan euskalduna. Ortik onako ondorio au atera
nai nuke: BITURI ta BITORI itz bat bera dirala iñork ukatuko ez didalako,
Araba'ko, eta gaur Euzkadi'ko, Uri Nagusiaren izena ere, BITORI, Euskalduna
dala; ez duala erderazko VICTORIA'rekin zer-ikusirik.

Orixe da, ainzuzen, gure BITORI euskal-izena dala oiukatzeke erabilli oi
dedan arrazoietakoko bat. Baditut geiago ere. Jakin nai dituanak, neri deitu bes-
terik ez du.

Orretarako ipiñi oi dut nere izenpenaren ondorean nere urrutizkiñaren zenbakia.
Goazen berriro gure larruki auetako giza-izenei begiraldi bat ematera:

GARCIA ENNECONES

– GARCIA ENNECONES rege in Pampilona: Jaun au, Gartzia Enekorena,
Iruña'ko erregea dugu.

915 edo 926'tik 1150'ra lau izan omen ziran Iruña'n izen ortako erregeak.
Gure au, ordea, lenagokoa da, 852'koa, Eneko Aritzaren semea.

Euskal erregetzaren astapenean, bi korapillo ditugu euskotarrok. Bata Gar-
tzia izeneko erregeen zenbatgarrenari dagokiona. Bestea, gure lenen erregea
zein izan ote zan ziur ezin jakin aal izateari buruzkoa:

⁵ «Askoli'ko beruna» ere esan oi zaio tupizko ol orri.

LENENGO LAU ERREGEAK

Esan oi danez, onoko auek izan ziran Iruña'ko lenen lau erregeak:

- IÑIGO ARITZA (824-853).
- I GARTZIA ENEKORENA (852-870).
- I FORTUM GARTZIARENA (870-905).
- I SANTXO GARTZIARENA (905-925).
- II GARTZIA SANTXORENA (926-970).

Baiñan ez gaude danok zerrenda orrekin bat: Ortik gure bi korapilloak:

- Aurrenekoa: gaur edestilari askok Gartzia izeneko erregeen artean LENENGOTASUNA, Gartzia Enekorena'ri ez baiña Gartzia Santxorena'ri eman bear zaiola diote, ots, guk II'a lez aurkeztu dugunari.

¿Ori zergaitik? Gure zerrenda ortako lenen iru Errege oiek (Iñigo Aritza, Gartzia Enekorena eta Fortun Gartziarena) euskaldunen buruzagi bai, baiña egiazko errege izan ziranik uste ez dutelako.

Beren ustez Iruña'n egiazko Erreiñua, I SANTXO Gatzziarena'rekin asi zan. Egia da errege orrek sendotasun eta benetako ziurketa sendoa eman ziola gure Erreiñu koxkor ari, baiñan ez zait iruditzen ori arrazoi naikoa danik, bere aurreko iruak egiazko errege izan ziranik ontzat ez artzeko.

- Bigarren korapilloa: Orain gutxi arte edestilariak Euskalerriko lenen erregea Iñigo Aritza ez baiña Gartzia Jiménez, ots, Gartzia Ennekorena izan zala uste izan zuten edestilari askok, Garibai'ri ta gai askotan aren bidetik ibilli zan Mariana'ri jarraituz. Uste ortakoa izan zan Navarro Villoslada ere bere «AMAYA o los Vascos en el Siglo VIII» eleberrian Naparroa'ko LENEN ERREGE Gartzia Jiménez ipiñiz, au baita, Amaya'rekin batean, edestiaren aldetik oso-oso balio motzekoa dan liburu orren protagonista.

Ala ikasi nuan neronek ere batxilleratokoan, «*el primer rey de Navarra fue García Jiménez. Fue alzado por rey en las Amescoas aunque otros dicen que en la Burunda*».

Erregeen irukoitzasun ortaz «Euskerazaintza» deritzan aldizkari ontan bertan itzegiña naiz.

Itz bat esan nai nuke Navarro Villoslada'ren «Amaya» eleberriari-buruz: Onako auxe: Naiz edestiaren aldetik eleberri ori txit balio urrikoa izan, zor aundia diogu bâ abertzaleok Navarro Villoslada'ri, izan ere, naiz agian bere naiaren aurka, bere liburu orrek lotan zeuden euskaldunei bikainki agertu bait zien begien aurrera Ama Euskalerraren nortasun ederra, ondorioz Euskalerrarenganako maitzuna bizkortuz, eta orrela «euskotarren Aberria Euzkadi dala» ontzat artzeko euskaldunen gogoa gertutuz.

* * *

GULGESINDUS

– GULGESINDUS gotzaia. Bere izenak germaniarra dala dirudi. Ondo ezaguna dugu. Iruña'ko gotzaia bait zan, —»...*in episcopatu in Pampilonia*» (sic)—, Euskalerrri artako lekaidetxeak ikusi ondorean Done Eulojio kordobatarrak idatzi zionean.

FORTUNIUS

– FORTUNIUS edo FORTUN. Leire'ko abata zala diosku larrukiak: «*Abbas Fortunio in abbatia in monasterio que dicitur legerense*». «Leire'koa esan oi zaion lekaidetxean abata»

Fortun, Fertun, Fertungo, Fortunio, Fortungo, euskaldunek asko erabilli zuten izena da; latinezkoa; euskeraz «Adu On» edo «Zorion» esan nai du. Beranduko Antziñate aroko larruki piñatar auetan berrogei ta bi aldiz agertzen zaigu.

* * *

SEI LEKAIDETXE

Ondorengo sei aukerak lekaidetxe berriaren sorketaren eta batez ere lekaidetxe berriari egindako alor-kopuru ugari aren emaitzaren lekukoak dira:

- MICARRO MENZONEZ.
- GUTU MUNIONES.
- GONIS GALINDONIS.
- EXEMENO BANZONES,
- GALINDO BERTUIONIS.
- GALINDO SCEMENONES.

Begira egiezu 6 giza-izen oiei. Zarrak dira IX mendekoak. Dauden bezala, latinez idatzita, ez dute euskal-itxura aundirik baiña ez dira latinezkoak ere, ta seietatik ez da bat bakarrik kristaua. Baiñan alatagutziz gizaseme aiek, naiz izenez ez kristau ez euskaldun izan, egiazko kristauak ziran, eta euskaldunak. Kristauak, lekaidetxe bizkorrez ornitutako Ipar-Aragoi artan oro kristaua zalako, eta sei gizon oien izenak, gaiñera, jez al ditugu, ainzuzen, Lekaidetxe baten sorketan lekuko izan ziralako larruki ontan idatzirik aurkitzen?. Bestalde, mende artan oraindik, eta baita geroxeago ere, kristauen izenak kristauak ez izatea ez zan oituraz kanpoko gauza.

Ta, euskaldunak zirala ez daiteke ezbaiean ipiñi. Aragoi'ko iparralde ura zeoro zan euskaldun orduan eta askoz geroago:

XIV mendearen erdian Jaka'n euskeraz itzegiten zala esaten duan larruki bat badugu. Baita beste bat ere XVI mendekoa, Oska edo Ueska'ko Urian bertan euskeraz itzegiten zala dioskuna.

XVII mendean, berriz, Arnaldo Oihenart'ek, mende ortan bertan idatzi zuan «*Notitia Utriusque Basconiae*» liburuan, ez diosku Jazetani osoan euskeraz itzegiten zala, ez..., izan ere, askoz garrantzi aundiagokoa bait da esaten diguna: Jazetani, alegia, Bizkai edo Gipuzkoa bezala oso osoan Ego-Euskalerrriaren probintzi bat zala.

XIX mendearen asieran Jose Domingo Garat'ek Auñamendiaren egoan «Euskera Katalauni'ko mugara arte mintzatzeko zala idatzi zion bere adiskide Napoleon Bonaparte'ri txosten ofizial batean.

Eta, XX mende berean, gure aurtzaroan, Ueska'ko Yebra de Basa'n eta Zaragoza'ko «Bost Urietako» batean, Uncastillo'n, euskerak bizirik jarraitzen zuan oraindik. Au egiztatzeko duten dokumentuak aldizkari ontan argitaratua naiz.

So egiezu berriro zerrendako 6 izen aien abizenek. Danak daramakite aipatu-berri dugun «NES» «NIS» atzizki norentasun adierazlea: Micarro Menzonez... etabar.

Izen eta abizenen sustrai diran giza-izen oiek, Galindo ta Exemeno —ta izen bera dan Scemeno (Jimeno)— izan ezik, izengoitiak geiago dirudite izenak baiño: etheen izenak agian; Euskal errietan oiturazkoa bait da jendeari bere jaiotetxearen izenez deitzea.

Orrela MIKARRO izengoiti bat dala esango nuke nik, ezagutu bait dut Napparro'ko Betelu'n izengoiti orren antzeko izengoiti bat, MUTXARRO, zeraman etxejojaun bat.

Eta Mikarro orren abizena, MENZONEZ, lumalariren batek oker idatzitako MONZONEZ dala, ots, MONZONENA. «Monzon» Indostam'go aize euritsu baten izena da eta Ueska'ko erri aundi batena. Ta zaude ziur irakurle Aragoi'ko Montzon ori ez dala indierazko izkuntzatik artutako itza, euskalduna baizik. Beraz, Montzon zan Mikarro gure adiskide zar arek zeraman abizenaren sustraia.

GUTU MUNNIONES. Gutu zer dan ez dakit. Izengoitia dirudi. Bizkaierak badu Gurtubai itza, Gurtu-(i)bai abizen lez. «Gutuna», «karta» edo «epistola» izateaz gaiñera, euskera osoan gauza txiki, polit, maitagarri bat da «eskapulaioa», adibidez. Ta «kutuna» ta «maitea» zentzu bera duten itzak dira. ¿Izengoiti-eran esaten ote zioten jaun ari «KUTTUNA»?

MUNNIONES edo, («NNI»=>«Ñ»), MUÑONEZ, «Muño'rena» da. Muño Euskalerriko idazki zarretan sarritan agertzen dan izena dugu. Zazpi aldiz bai beintzat Piña'ko larruki auetan «Beranduko Antziñatean»⁶. Gure III Santxo'ren emazte batek MONNIADONA, ots, MOÑADONA izan zuan abizen:

Muña'ren azkeneko «A» Muño'ren «O» bera dala esan bearrik ez dugu. «O»z amaitzen diran itzak azkeneko «O» ori maiz biurtzen bat dute «A» beste itz batekin alkatzean: muño+gorri=muñagorri, arto+buru=artaburu, ardo+gela=ardangela, garo+di=garadi, mando+ko=mandako, asto+belarra=astabelarra, otxo+kume=otsakume etabar.

«Dona» latiñezko «Domina»ren, laburpena dalako, erregiñ aren izena, Muñadona, MUÑA ANDREA zan euskeraz.

EXEMENO BANZONES. Esan dut idazki zarretako Exemeno, Scemeno, Eximino, Semeno eta Xemeno izen bat bera dirala: Jimeno edo Ximeno, gaur. Au ere gura lurralde zar ontan ain ugari agertzen dalako, emen sortua dala dirudi; euskalduna, beraz.

BANZO zer izan daitekean ezin esango dizut. Aski ugari agertzen da izen bezala Beranduko Antziñatean idatzitako larruki ontan: *Bancius* Labasal'ko Yulen Deunaren lekaidetxeko abata baten izena zan 893'an. Izen ortako beste abata bat, «*Bancius abbas*», 983'ko larruki batean dator, II Santxo Abarka erre-

⁶ «Beranduko Antziñatea»: Gaztelera, «ANTIGÜEDAD TARDIA». Nere iritzi, Euskalerrian Beranduko Antziñate ori X mendearrekin amaitzen da, III Santxo Nagusiaren erregetzakoa «Alta Edad Media» edo «Erdiara Garaia»ri asieran emanez.

ge zala. «*Dominus Bancio clavero de rege*», «III Santxo Nagusia'ren giltzazaiña zan 1027'n. Eta beste lau, urrengo urteetan «*Bancio escriba*», «*Vancius frater*», «*Bancio presbiter*», «*Banzo* (sic) *Adogüeri*» eta «*Don Bancio de Agüero*». (Erri au, Agüero, ez da Kantabri'n dagoana, Ipar-Aragoi'ko beste bat baizik).

GONIS GALINDONIS. Ez dakit Gonis ori zer izan daitekean ¿Larruki ontan eskua sartu zuten lumalarietako batek gaizki idatzitako Gomis edo Gomiz ote?

GALINDONIS, Galindo'rena dugu, eta GALINDO euskera zarrean oso maiz agertzen zaigun gizaizena. Piña'ko kartulario ontan, Beranduko Antziñateko larrukietan bakarrik ogei ta amazapzi aldiz agertzen zaigu.

Larruki onek berak ere badamaigu izen ori zuten beste bi gizonen berri: GALINDO SCEMENONES, (Ximeno'ren Galindo) eta GALINDO BERTIONIS (Berzio'ren edo Berzion'en Galindo).

Galindo'k naitanaiez izan bear du izen euskalduna, naiz bere esan-nairik eza-gutu ez. Seguruaski Aragoi'ko euskerazkoa jatorriz, geienbat gure sortalde artan agertzen bait da.

BERZIO edo BERZION zer dan asmatzerik ez dugu. Alare, BERTZI-O, BERTZI-ON, itzak badu euskal-antza polita, «O», «ON», egoitza adierazten digun euskal-atzizkia bait da.

* * *

IDAZLEAK

Eta ona emen bigarren larrukikoak. 850'ko Uztaillaren 5'ekoak:
Larrukiaren «idazleak»

EZCEMENO

FESSEMA

BELLESSIMA

Iru gizakume oiek aideak zirala dirudi. Senideak agian. Fessena'k berak esaten du Bellessima ¿Bellisima?, («E» izkia «I» agoskatzen bait zuten) aipa zuala. ¿Eta Jimeno? Bera ta Fessena agertzen dira lendabizi larrukian biak lekaide-txeari alor bat bera emanez. Lerro batzuk geroago datorkigu Bellessima. Jimeno ta Fessena, biak ziran era berdiñean lur aren jabe. ¿Zer ote ziran bata-bes-tearenganako? ¿Aita alabak?, ¿senar emazteak?, ¿anai arrebak?

Ta? ¿Iru izen oiei buruz ezer geiagorik ez? Ez bâ. Jimeno'z, mintzatu-berria naiz; Fessena'z zer esan ez dakit, eta Bellissima'ren esan-naia, itxuraz beintzat, naiko argia dala dirudi. Ori, BELLISSIMAA (irakurri ezazu Belisima) latiñezko «bellus-bella-bellun» itzaren aundiera edo superlatibo emea ba'da! Izan ere, lai-ñezko itz orren atzean, euskerazko BELA bat egon bait daiteke: Bela-te, Bela-bieta, Bela-untza, Bela-skoain, Bela-aran, eta orrelako izenetan datorkigun Bela.

LEKUKOAK

A) BEREIZIAK

-GALINDONE

-GARSEA ENNECONIS.

– Izen oiei-buruz ez dut ezer asko esan bearrik «Ennekonis» eta «Galindone» (azkeneko ori, larrukian, ablatibu edo non-keran dago), aiztintxe azaldu bait ditut.

Esan dezadan larruki ontako Galindo au Aragoi'ko Kontea zala, eta Gartzia Enekorena Iruña'ko erregea: «*Facta carta donationis ecclesiae III nonas iulii, regente domino Galindone Araone, Garsea Enneconis Pampilona*»: «Elizari uztailaren 5'ean emandakoari-buruzko gutun au Galindo konteak Aragoi eta Gartzia Enekorena'k Iruña jaurtzen zutenean idatzi zan».

GARTZIA, arras izen ugaria Akitani'tik Errioxa'ra Euskalerrri Zar osoan. Zer esan nai duan ez dakigu. Badira «Artza» abere-izenetik datorrela diotenak. Egia da, esan dedan bezala, antziña artako euskaldunek gizakumeei abere-izenak ipintzeko oitura bazutela eta egia da, baitare, noizbeinka «HARTZIA» izena agertzen dala dokumentu zarretan, baiñan ez, «Hartzia» ori eta «Gartzia» izen bat bera dirala esateko aiña.

«Hartzia» oso-oso gutxitan agertzen da bâ, eta, alderantziz, arrigarria bait da «Gartzia»ren agerketen ugartasuna!

B) ARRUNTAK

– INGILIAM: («LI»=>LL»), INGILLAN. Ez du euskal-itxura aundiegirik.

– GALITTO: ¿«GALI-TTO», «Galitar Txikia», izengoiti modun? Ez zait ori aiñ ondo esana iruditzen: etimologi aulxamarra izateaz gaiñera, «Gali», gaurko Frantzi, bi «L»z idazten bait zuten latinez: GALLIA, LA FRANCIA.

– SAMUEL: Ebertarren erderazko itza. Samuel Israel'go anfiktionikoan «Epaille» esan oi zitzaien Jaurleri aietan azkenekoa izan zan.

– DONNOLUS: («NN»=>Ñ»), DOÑOLUS. (¿?). Itz orren «Donno», Jaun esan nai duan «Domno» bezala, latinezko Dominus itzaren laburpana ba'litz, DONNO-LUS, JAUN-TXO izango litzake

– BOSO: ¿BASO?.

– ASNARIUS. «Asno», latinezko «Asinus»tik sortua, euskeraz zer dan bada-kizute: ASTOA, (bearbada, au ere latinezko «Asinus»tik sortua. Asinarius «astogizona» izango litzake: «astozaiña» adibidez, edo asto-saltzaillea, baiña baita «astoaren antzeko gizona» ere, gure gaurko euskeraz ASTAKILLOA.

Bâ Asinarius izan zan izenez Bisigoten aroko Euskalerrri Zar aren ego-egoan zegoan OKA uriko gotzaia, Toledo'ko kotzilioetara joan zana. ¿ASTAKILLO ez dala gotzai batentzat izen egokia? Ez zaitez kezketan nâsi. Oitura bait zuten Gotzai aiek, beren apaltasuna erakutsi naiez, beren buruei izen iguingarriak ipintzea. Batek, STERCOREUS zeritzan: «Zimaurraz betea», edo berdin dana, «Kakatsua».

Baiñan...baiñan... «Asinarius» ori ¿ez ote da «Azenarius»? , eta «AZENARIUS au eta «AZENARE» ¿ez ote dira gaurreguneko «AZNAR» bera?

Bai, Ubieta'ren ustez, ta uste orri jarraituz, eta danak zerenda bat berean nâsirik, 19 «Asinarius», «Asnari», «Azenare» eta «Açnar» damaizkigu Piña'ko kartulario oni-buruzko bere liburuaren azken orrietako gizaiztegiari.

Beste kartularioetan ere badatoz izen oiek. Itz bat ba'lira bezala nâsirik, Albelda'koan, 19. Siresa'koak, naiz ortografi ezberdiñez, soilki AZENARIZ eta itz ontatikik sortutakoak damaizkigu: guztira, 4. Kukulla'koak, «AZNAR» itza bakarik dakar, 12 aldiz, eta, bein, AZNAREZ.

«III Alfontso'ren Kronikak», bat bakarrik ere ez!

Orrek ¿zer esan nai ote du»? Aznar itza Sortalde ta Erdialdeko Euskera bakarraren itza dala? Sartaldekoak itz ori ezagutzen ez zuala? Ezpairik gabeko gauza bait da, AZNAR izen euskalduna dala.

Itz guzti oien agerketa oiek, ordea, IX mendiaz gerokoak dira, beraduegi-koak beroietaz esan daitekeanak bisigoten aroko gotzai aren izenarentzat balio izateko. Nere iritziz, aren izenak, «ASINARIUS»ek, «ASTOA»rekin zer-ikusirik geiago bait du «AZNAR» (latiñez «AZENAR») itzaren barruan izkutaturik omen dagoan «AZARIA»rekin baiño.

- AURIOLUS, («AU»=»O»), ORIOLUS, («Lus», latiñez atzizki txipitasun adierazlea da. Adibidez, «puerulus», «aurtxoa»). Ori orrela dalarik, ORIOLUS ori, ORIOLTXO dugu euzkeraz.

ORIO, sarritan agertzen dan izena: Beranduko Antziñatean, eta Erdiari Goikoaren sarreran: bederatzi aldiz Peña'ko Kartularioan; bein, Siresa'koan, 978'ko larruki batean: Baiñan larruki ortan gure larruki ontako «*Oriolus episcopus*» orrek *ARIOLUS* idatzi zuan bere izena: «*Ariolo episcopo in Aragone, Belasco episcopo in Pampilona et Benedictus episcopus in Nagera*».

Errege bera da, bere emaztearekin, bi larrukiak ziurtatzen dituana: II Santxo «Abarka» Urraka erregiñarekin: «*indigni et exigui Christi famuli*» (merezki gabe Kristo'ren serbitzari kokkor geran) *Sancius rex et Urraka (sic) regina*».

Kukulla'ko Donemillan'en lekaidetxeko kartularioan bederatzi aldiz agertzen da ORIO eta amabost aldiz ORIOLEZ. Ta, 929'KO larruki batean ORICULUS, ots, ORIOLTXO, latiñez «culus» ori, gure «txo» bezala, atzizki txipitasun adierazlea dalako.

CENTOLLUS.)?

ELLEBONUS.)?

EMBOLA.)?. Iru izen auetaz, zer esanik ez dut.

AGILA. Iku iru lerro beerago AGILANIS.

GALINDO SALOMON. Azkeneko izen au, Biblia'ko errege jakintsu arenetik, jasoa ez dut beiñere ikusi gizaseme bati jarria.

ENNECO eta Galindo. Bi izen auetaz ere mintzatu-berria naiz.

AGILANIS. Agilanis, «Agila'rena» da. Agila, latiñez Aquila, euskeraz Arrano da. ¿ARRANORENA ote zan Jaun aren izena, lumalari batek gero erromantzezko AGILARENA biurtua?

Izen ori, ordea, «G»z idatzi zuan. Bi aldiz gaiñera: AGILA eta AGILANIS. Gaztelarren antzera «G» ori «J» agoskatua izatea nai ote zuan? Orrek, ordea, zailla goa egiten du itz oien etimologia.

* * *

– Done-izenak

– MIREN DONEA: «...fecerunt ecclesiam Sancte Marie Fontisfride»: «Miren Deunaren Fontisfride (Iturriotz)'eko eliza egin zuten».

Eta, gauza arrigarria gure dokumentu zarretan: 850'ko larruki onek ez damai-gu beste doneren izenik.

Ona orain emen, urte ortako bigarren larrukiak, Uztaillaren bostekoak, damaizkigunak:

– YONDONIBIXINTXO edo DONEBIXENTE: Done au, Ueska'n jaiotako irugarren mendetik laugarrenarakora euskaldunen artean mixiolari izan ondorean martiri izan diakono ura bera dugu. Ala irabazi zuan bere erritarren artean deikera txit onuragarri ori: YONDONIBIXINTXO.

«De Sancti Vincenti de Arres»: «Arres'ko Yondonibixintxo'rena»: larrukiaren sarrerako izenburua da.

– YONDONIMARTTI. Au ere, euskalerriarekin zer-ikusit aundia izan zutelako YONDONI izengoiti aitzakorra irabazi zuten lau Done aitako bat dugu. Turena'ko Gotzaia izan zan. Parroki eta lekaidetxe sortzaille aundia IV mendean, eta bere lekaideen bidez Ipar-Euskalerriarekin lan bikaiña egin zuana.

YONDONI AURRE-IZENA

YONDONI izena irabazi zutenak, —Ueska'ko Yondonimartti eta Yondonibixintxo'z gaiñera—, III mendeko gotzai bi bakarrik dira. Mende artan itxasotik itxasora luzatzen zan Euskalerriak izan zituan gotzai bakarrak: TARRAKO edo Tarragona'ko Fruktooso, YONDONIMURTUX, «Ego-Euskalerritako gotzai, bata; eta bestea, Akitani'ko Tolosa'ko Saturnino Donea, YONDONIXATURDI, Ipar-Euskalerritako gotzai. Eta orduan elizbarritiko mugak, ez bait ziran gaur bezain ziurrak, egia dala dirudi Iruña'raiño etorri zala, eta bera dela iruñsee-ekin ain gogo berotz gurtzen duten San Zernin.

Lau oiek dira Euskal-Elizaren sorkuntzakoan euskaldunengandik izengoiti eder ori lortu zuten doneak.

Ez zuan ori lortu orduango beste Done euskaldun aundi batek: Ueska'n jaiotako Donelorentzo'k. Agian bere lan arrigarria, bere errian ez baiña atzerrian, Erroma'n, egin zualako.

Euskalerritari era berezian loturik egon ziran lau done oititik landa ere, oso gutxi izan ziran izen onuragarri ori irabaztera iritxi ziranak: zazpi; eta bat bakarrik ez geiago, naiz Elizaren lenen mende aietan, ugari izan Done benetan aundi ta ospetsuak.

Ona emen zazpi oiek: Iru goiaingeruak (Mikel, Gabirel eta Errapel). Donibane batallaria, lenen Aitasuantua eta Apostoluetan aundiena (Kepa eta Paul), eta, azkenik, Elizaren aurreneko martiria: Donestebe Diakonoa.

Eta papo! Tolosa-aldeko umeez zerbait bukatu dala adierazi nai dutenan esan oi duten bezala.

* * *

Bigarren larruki onek ere ez digu beste donerik iñor aipatu.

Latiegi Eraso'tar Bixente
Bitori 945.23 31 40